Korrika Txikia

Haurren Korrika da, eta herriko ikastetxeen laguntzarekin, herria zeharkatzen du, haurrek ere Korrikan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Korrika Txikia Bizkarsoron

Eguna: martxoaren 21ean
Ordua: 12:00etan
Lekua: Andra Mari kalea

Omenduak

Korrikaren ekitaldi bakoitzean, euskararen aldeko konpromisoagatik nabarmendu diren lagunak, taldeak edo eragileak omentzen dituzte.

Korrika honetan Azterketak Euskaraz kolektiboa omenduko dute. Zehazki, baxoa eta brebeta euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak.

Martxoaren 21ean
19:30ean
Bizkarsorotik pasatuko da

aek 23.korrika
HARRO HERRI

UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Zer da Korrika?

Korrika Euskal Herria zeharkatzen duen euskararen aldeko ekimen erraldoi eta herrikoia da. Bi urtean behin izaten da.

Zertarako da Korrika?

- Gure hizkuntza zaintzearen garrantziaz jabetzeko.
- Euskaltegietarako dirua biltzeko.

✓ 11 egunez eta gauez, gelditu gabe, Euskal Herria osoa zeharkatuko du.

✓ Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik pasatuko da: Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa, Araba, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.

✓ 2.500 kilometro baino gehiago, 200 herri baino gehiagotan barrena.

✓ 1980 urtean egin zen lehen aldiz.

✓ Milaka eta milaka lagunek hartzen dute parte Korrika bakoitzean.

Lekukoa

Lasterketaren hasieran, (2024-03-14, Irun) mezu bat gordeko da lekukoan.
Lekukoa eskuz esku ibiliko da, herriz herri, 11 egunez.
Helmugara iristean, (2024-03-24, Baiona), lekukoa ireki eta mezua irakurriko da.

Aurtengo leloa: **Harro Herri**

Aurtengo Korrikaren leloa Harro Herri da. Lema horrekin euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasuna islatu nahi izan dute antolatzaileek.

Abestia

Korrika bakoitzak bere abestia izaten du. Aurtengoa Maite Arroitajauregi 'Mursego' musikari eibartarrak egin du, eta beste hainbat musikariren kolaborazioarekin landu eta grabatu du. Berezia da aurtengo abestia. Sei-zazpi zati ditu, eta "pop-barroko" bezala definitu du egileak.

Informazio guztia, eskura

Korrikaren ibilbidea herriz herri, aurtengo eta aurreko urteetako abesti guztiak, bideoklipak, argazkiak eta Korrikaren inguruko albisteak eskura izateko, korrika.eus webgunera jo daiteke. Korrika APP aplikazioa ere doan jaitsi daiteke, iOS zein Android sistema eragileetan.



Korrika Txikia

هي كوريكا Korrika للأطفال البنين والبنات، وبمساعدة المدارس المحلية، تتنقل في جميع أنحاء البلدية ليتمكنوا أيضاً من المشاركة في الكوريكا Korrika.

Korrika Txikia Bizkarsoro

التاريخ: 21/03/2024
الساعة: 12:00
المكان: Andra Mari kalea

التكريم

في كل نسخة من كوريكا Korrika يتم تكريم أشخاص أو مجموعات أو وكلاء برزوا في التزامهم باللغة الباسكية. وسوف تقوم كوريكا Korrika لهذا العام بتكريم مجموعة أزتركيتا إوسكاراز Azterketak Euskaraz، وعلى وجه التحديد، الطلاب من شمال إقليم الباسك الذين ناضلوا ومازالوا يناضلون من أجل إكمال شهادة البكالوريا ودبلوم المستوى الثالث (شهادة) باللغة الباسكية.

21-03-2024
19:30
Bizkarsoro

aek 23.korrika
HARRO HERRI

UdeMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

الشاهد

عند بداية الجولة (14-03-2024، إيرون) سيتم حفظ رسالة في الشاهد.
وسوف ينتقل هذا الشاهد من يد إلى يد خلال 11 يوماً ويجوب بلدات مختلفة في الأراضي السبعة في إقليم الباسك.
وعند وصوله إلى مكان الوجهة (24-03-2024، بايونا) سيتم فتح الشاهد وسيتم قراءة الرسالة.

شعار هذا العام: Harro Herri

شعار كوريكا Korrika لهذا العام هو Harro Herri. أراد المنظمون بهذا الشعار أن يعكسوا مدى الفخر الذي يشعر به المجتمع الباسكي باللغة الباسكية.

الأنشودة

كل كوريكا Korrika لها أنشودتها الخاصة. ففي هذا العام قامت بتلحينها مايتي أرويتاجوريجي، وهي موسيقارة من إيبار معروفة باسم "مورسيجو"، والتي عملت وسجلت الأنشودة بالتعاون مع موسيقيين آخرين. أنشودة هذا العام مميزة. وهي تتألف من حوالي ستة أو سبعة مقاطع، وقد عرّفت المؤلفة هذه الأنشودة بأنها من نوع "بوب باروكي".

المعلومات



جولة كوريكا Korrika وجميع أناشيد هذا العام والأعوام السابقة ومقاطع الفيديو والصور وجميع الأخبار المتعلقة بكوريكا Korrika متوفرة ومحدثة على الموقع الإلكتروني korrika.eus. بالإضافة إلى ذلك، يمكن تنزيل تطبيق Korrika APP مجاناً على نظامي التشغيل آي أو إس iOS وأندرويد Android.

ماذا تعني كوريكا Korrika؟

كوريكا Korrika هي مبادرة شعبية لدعم اللغة الباسكية تجوب إقليم الباسك. مرتين في السنة.

ما هو الغرض من ذلك؟

- إدراك مدى أهمية الاهتمام بلغتنا.
- جمع الأموال من أجل euskaltegis (مراكز تعلم الباسكية).

- ✓ سوف تجوب خلال 11 يوماً وليلة، ومن دون توقف، جميع أنحاء إقليم الباسك.
- ✓ تنتقل عبر أراضي إقليم الباسك السبعة: جيبوزكوا وبيزكايا ونفاروا وأرابا ولابوردي ونفاروا وبيهيريا، وزبيروا.
- ✓ أكثر من 2500 كيلومتر عبر أكثر من 200 بلدة
- ✓ أقيمت لأول مرة في عام 1980
- ✓ يشارك آلاف الأشخاص في كل كوريكا Korrika.